

9EH EUSKARA
getxo euskalduntzeko hitzarmena **MERKATARITZARA**



**KONTSUMITZAILEEN LEGEA
ETA EBPN**

OINARRI JURIDIKOAK

1.- Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak, bere 25.2.g) artikuluan, udalei eskumenak gai hauetan aitortzen dizkie:

- ✿ Aldizkako merkatuak
- ✿ Hiltegiak
- ✿ Azokak
- ✿ Merkatuak
- ✿ Erabiltzaile eta kontsumitzaileen babesak

2.- Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko Oinarrizko Legearen 26. artikulua:

“... Herritarrei bere merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste ekintzapidetan euskaraz ari daitezeneko bideak eskeintzeko.”

3.- Auzitegi Konstituzionalaren, irailaren 13ko 15/1989 epaia: Kontsumitzaileen babesari eta defentsaren inguruko gaietan udalei dagozkien eskumenak

- Estatuko legeen bidez
- Edo, dagokionean, autonomia erkidegoen legeen bidez zehaztuko dira

Beraz, EAEk eskumen horiek bere gain hartuta dituen berari dagokio kontsumitzaileen babesaren lege bidezko garapena.

4- Abenduaren 22ko 6/2003 Legea Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena

KONTSUMITZAILEEN ESTATUTUAK UDALETAN

ZEIN ERAGIN DU

- ✿ 37. artikulua hizkuntza eskubideen inguruko printzipio orokorrak jasotzen ditu:
 - Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzekoa
 - Autonomia Erkidegoan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekiko harremanetan ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa
- ✿ 38. artikulua Legeak erakunde publikotzat zer hartzen duen jasotzen du eta erakunde publiko horiei betebeharreko batzuk jartzen dizkie:

ERAKUNDE MOTA	BETEBEHARREKOAK	NOIZ
<ul style="list-style-type: none"> ■ Tokiko administrazioa ■ Bere autonomiadun erakundeak ■ Eta udalari dagozkion zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresak: <ul style="list-style-type: none"> ■ Garbiketa zerbitzua, lorategiak zaintzeko zerbitzuak... 	<ol style="list-style-type: none"> 1- Errotuloak, oharra eta jendeari zuzendutako komunikazioak 2- Inprimaki eta eredu ofizialak 3- kontratuak 4- Jakinarazpenak, fakturak, aurrekontuak... 5- Mantenimendurako liburuxkak, etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak 6- Produktu, zerbitzu eta ondasunen inguruko eskaintzak, sustapena eta publizitatea. 	<p>Bete beharrekoa</p>
	Erakunde publikoekin dituzten harremanetan, arreta, kontsumitzaileak aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea	<p>Progresiboki arautuko du Jaurlaritzak</p>

KONTSUMITZAILEEN ESTATUTUAK UDALETAN

ZEIN ERAGIN DU

39. artikulua diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak arautzen ditu. Udalen kasuan, esate baterako, Udalak diruz laguntzen dituen erakundeak, elkarteak...
40. Artikuluak jendeari produktuak saltzeaz eta zerbitzuak egiteaz arduratzen diren establezimenduak arautzen ditu.

ERAKUNDE MOTA	BETEBEHARREKOAK	NOIZ
<p>☀ Diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak</p>	<p>1- Errotuloak, oharrak eta jendeari zuzendutako komunikazioak 2- Inprimaki eta eredu ofizialak 3- kontratuak 4- Jakinarazpenak, fakturak, aurrekontuak...</p>	<p>Progresiboki arautuko du Jaurlaritzak</p>
<p>☀ Establezimenduak</p>	<p>1- Errotuloak, oharrak eta jendeari zuzendutako komunikazioak 2- Inprimaki eta eredu ofizialak 3- kontratuak Era berean, arreta, kontsumitzaileak aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea Bestetik, establezimendu komertzial handiek honako hau ere bete beharko dute: 4- Jakinarazpenak, fakturak, aurrekontuak...</p>	<p>Progresiboki arautuko du Jaurlaritzak</p>

ZER DIO EBPNk MERKATARITZA ETA ZERBITZUGINTZAZ

HELBURU NAGUSIA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- 1- Euskara ondorengoetaratzea
- 2- Euskararen erabilera
- 3- Euskararen elikadura

ESPARRUAK

Bigarren helburu estrategikoan sartzen da ENPRESA MUNDUA eta hirugarrenean PUBLIZITATEA

NEURRIAK “ENPRESA” MUNDURAKO

1.- Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

ZER DIO EBPNk MERKATARITZA ETA ZERBITZUGINTZAZ

2.- Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren partehartze zuzena lortu, batez ere, euskararen erabilera areagotzeko proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko teknikariak trebatzeko eta proiektu horiek gero eta enpresa gehiagotan gauzatzeko baliabideak esleitzeko. Sail horiek, halaber, plangintza egokiak jarri beharko dituzte abian menpean dituzten erakundeetan (Eusko Trena, EITB, Naturgas, eta abarretan).

3.- Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriaz, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

4.- Unibertsitateak, zentro teknologikoek, lanbide-heziketako ikastetxeek eta institutuek antolatzen dituzten langileak birziklatzeko ikastaro zenbait euskaraz egin.

5.- Dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenez, hizkuntza-irizpideak ezarri enpresa-munduan diharduten enpresa-erakunde, sindikatu, merkataritza ganbara eta elkargo profesionalak antolatzen dituzten ikastaroetan, orain arte bezala erdara hutsean izan ez daitezen.

ZER DIO EBPNk MERKATARITZA ETA ZERBITZUGINTZAZ

NEURRIAK “PUBLIZITATEA” ESPARRURAKO

1.- Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako “inertzia”, “errentagarritasun eza” eta “konnotazio negatiboak” neurri batean behintzat neutralizatzeko.

2.- Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.

3.- Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

4.-Enpresa-estrategia erakargarriak eta eraginkorrak jarri indarrean, enpresa publiko, erdi publiko eta enpresa pribatu enblematikoak ere beren orrietan iragarle izan daitezten.

Zer dio udal bateko EBPNk honetaz

Neurria

2. d. 01 - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintzak

- 2. d. 01/1 - Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan euskararen erabilera areagotzeko egitasmoa abian ipini.
- 2. d. 01/3 - Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko laguntza eskaini.
- 2. d. 01/4 - Getxoko Enpresarien-Merkatarien Elkartearen planean inplikatu.
- 2. d. 01/10 - Dirulaguntzak euskarazko errotuluei, toldoei eta ibilgailuei.
- 2. d. 01/11 - Itzulpen eta maketazio zerbitzua.
- 2. d. 01/12 - Material idatzien katalogoa (merkealdia, zabalik/itxita...). GEHI: Euskara Merkataritzara.
- 2. d. 01/13 - Laguntzak enpresa, denda edo ostalaritzako establezimenduaren irudi korporatiboan euskara erabiltzeko.
- 2. d. 01/15 - Laguntzak enpresa, denda edo ostalaritzako establezimenduetako langileak euskalduntzeko. GEHI: Euskara Merkataritzara.
- 2. d. 01/8 - Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza tekniko edo diruzkoa eman, ezarrita dauden irizpideekin bat etorritz.
- 2. d. 01/16 - Sentsibilizazioa eta motibazioa lantzeko marketing kanpaina.
- 2. d. 01/19 - Dendari eta ostalariek eurek, euskarazko zerbitzua eskaintzen dutela identifikatzeko slogan edo bestelako ezaugarri bat sor dezaten laguntzea. GEHI: Euskara Merkataritzara.
- 2. d. 01/20 - Azalera handietan , denda kateetan eta hiriguneetako saltoki eremuetan (Kirol Portuan, Artean, Algortako Azoka eta inguruko eremua, Areetako Azoka...) euskara sustatzeko planak sustatu, inguruko herrietako Euskara Zerbitzuekin elkarlanean.
- 2. d. 01/21 - Bezero euskaldunek euskaraz egin dezaten marketing kanpaina.
- 2. d. 01/18 - Ikastaro behikularrak euskaraz dendari euskaldunentzat. GEHI: Euskara Merkataritzara.

Neurria

2. d. 03 - Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriaz, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

Ekintzak

- 2. d. 03/2 - Sindikatuak, Merkatal Ganbarak eta enpresa munduan eragina duten agenteekin euskara bultzatzen lan egin.

GATOZEN GETXOKO ESPERIENTZIARA

GETXO


- 85.000 biztanle
- 1.800 establezimendu inguru
- Getxon apenas dago fabrikarik. Merkataritza eta zerbitzugintza da nagusi Getxon.
- Getxon 10etik 2 dira euskaldunak; orain 20 urte 10etik bat.
- Getxoko Udalean hauxe da alderdi politikoek duten ordezkartza:

PNV-EA	11
PP	9
PSE-EE-PSOE	3
IU-EB	2
GUZTIRA	25

*Getxo Bizia plataformak aukera izan balu zinegotzi bat izango zuen


EUSKARA MERKATARITZARA KANPAINAREN EMAITZAK

- Unibertsoa 1.886 establezimendu
- Kontaktatu zirenak 1.653
- Horietatik:
 - 1.192k erantzun zuten
 - 320k ezezkoa
 - 141ek nformatzailerik ez...
- Beraz, emaitza 1.192 horiek emandako erantzunetatik hartutakoa da.
- Getxoko 10 establezimendutatik:
 - ◆ 6 txikizkako merkataritzakoak dira
 - ◆ %23 beste zerbitzuek osatzen dute
 - ◆ %17 ostalaritzakoak (199 establezimendu



ESTABLEZIMENDUEN EZAUGARRI NAGUSIAK


3. Grafikoa: MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEN HIZKUNTZA TIPOLOGIA EZAGUPENAREN ARABERA



Getxoko 10 establezimendutatik 3tan bezeroek badute euskaraz egiteko aukera

ESTABLEZIMENDUEN EZAUGARRI NAGUSIAK


4. Grafikoa: EUSKARAREN PRESEN ZIA KANPOKO ERROTULAZIOAN, ESTABLEZIMENDUEN JARDIRA MOTARI JARRAIKI (%)



Getxon %8 dira izen komertziala edo errotulu nagusia euskara hutsez edo elebietara duten establezimenduak

ESTABLEZIMENDUEN EZAUGARRI NAGUSIAK

12. Grafikoa: ETORKIZUNEAN ESTABLEZIMENDUAN EUSKARAREN PRESENTZIA AREAGOTZEAK IZAN DEZAKEEN ERAGINA (%)



Euskararen presentzia areagotzeak izan dezakeen eraginaz itauntzean 10etik 6 establezimenduk eragin oso positiboa ala nahiko positiboa izango lukeela uste dute.

ESKAERAREN BAT EGIN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK

ESKAINITAKO ZERBITZUAK ETA LAGUNTZAK

- ❶ gehi@getxo.net: ITZULPEN ETA MAKETAZIO ZERBITZUA URTE OSOAN ETA DOAN
- ❷ DIRULAGUNTZAK EUSKARAZKO ERROTULAZIOARI
- ❸ EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK
- ❹ EUSKARA IKASTERA DOAZEN LANGILEAK ORDEZKATZEKO DIRULAGUNTZAK
- ❺ MATERIAL IDATZIEN KATALOGOA
- ❻ MERKEALDIA eta ESKAINTZA BEREZIAK KARTELAK
- ❼ GABONETAKO LOTERIA ETA ERREGEETAKO LOTERIA KARTELAK
- ❽ HIZTEGIAK
- ❾ AHOLKULARITZA ZERBITZUA



546

establezimenduk
egin zuten
eskaeraren bat


469

establezimenduk
izenpetu zuten
GEHI hitzarmena

Diagnosia



GEHI
Getxo euskalduntzeko hitzarmena
EUSKARA MARKATARITZARA



Nork egin
Eragileak

Nola egin
Jarduerak

Zer egin
Helburuak




Jarduera plana

JARDUERA PLANA: ZER, NOLA, NOR

ZER EGINGO DUGU

1. HELBURU ESTRATEGIKOA

- ✿ Irudi linguistikoan (hizkuntza paisaian) euskararen erabilera sustatzea
- ✿ Getxon euskararen erabilera areagotzeko aukerak eskaintzen dituzten establezimenduak identifikatu eta eurekin lan egin.



NOLA EGINGO DUGU

- Zerbitzuen katalogoari, urtean zehar, zabalkundeak eman:
 - ✿ Zabalik/Itxita - Kartelak
 - ✿ Merkealdia/Eskaintza bereziak Kartelak
 - ✿ “Gabonetako loteria” eta “Erregeetako loteria” kartelak
 - ✿ gehi@getxo.net doako itzulpen zerbitzuaren jarraitu.
 - ✿ Maketazio zerbitzuarekin jarraitu: fondoak.
 - ✿ Inprimaki ereduak: fakturak, albarana...
- Diru-laguntzei ere zabalkundeak eman
 - ✿ Errotulua euskaraz ipintzeko diru-laguntza.
 - ✿ Euskara ikasteko diru-laguntzak merkatarientzat*
- Segimendua egin: urtean, gutxienez, bitan jarri harremanetan merkatariekin (bisiten bidez, telefonoz...)
- Jarraipen lanak bideratu eta sistematizatu: Merkadata programa informatikoa abian jarri.

JARDUERA PLANA: ZER, NOLA, NORK

ZER EGINGO DUGU

2. HELBURU ESTRATEGIKOA

- Establezimendu berriekiko harremanak ziurtatu denda zabaldu aurretik




NOLA EGINGO DUGU


- ONGI ETORRI karpeta: Getxoko Udalak lokala zabaltzeko edo berritzeko baimena ematearekin batera, Euskara Zerbitzuak prestatutako karpeta entregatu eta jabeekin-arduradunekin zuzenean harremanetan jarri. Karpetak euskararen erabilera sustatzeko zerbitzu eta laguntza guztien berri emango luke.
- Getxoko Udaleko Erregistroan eta hirigintza-obra zerbitzuan egindako lizentzia eskaeren zerrenda (hilean behin edo hamabostean behin) eskuratzeko prozedura abian jarri.
- Establezimendu berrien hizkuntza egoerari buruzko datuak jaso eta MERKADATAN sartu.

JARDUERA PLANA: ZER, NOLA, NORK

ZER EGINGO DUGU

3. HELBURU ESTRATEGIKOA

-  Sektore edo gremio mailako eskaintza espezifikoak landu.



NOLA EGINGO DUGU

- Lehentasunaren arabera, lehenetsi beharreko sektoreak zehaztu eta sektore horietarako material bereziak eta jarduera bereziak prestatu.
- Hasteko, **OSTALARITZA** sektorea aukeratu:
 - Idatziz: menuak, ogitartekoen zerrendak...
 - Ahoz: euskara ikastaro laburrak ostalarientzat
- **ALKARBIDE**ren bitartez sektoreetako irudidun kartelak prestatu.

JARDUERA PLANA: ZER, NOLA, NORK

ZER EGINGO DUGU

4. HELBURU ESTRATEGIKOA

- Merkataritzako eragile sozioekonomikoekiko harremanak landu: “Getxo enpresa eta merkataritza” elkarteak, Behargintza, GATC (Gabinete Asistencia Técnica al Comercio)...



NOLA EGINGO DUGU


- Merkataritza sektorearekin harremana duten udaleko atal eta zerbitzuak egitasmo honetan inplikatu: Behargintza, Erregistroa, Hirigintza...Merkataritza sektorean aplikatzen diren hizkuntza-irizpideak ere barneratu.
- “Getxo enpresa eta merkataritza” elkartearekin elkarlana sustatzeko prozedura bat prestatu.
- Egitasmo bera abian duten inguruko herriekin (Leioa, Erandio...) eta instituzioekin (Jaurlaritza, Aldundia) elkarlanean jardun.

JARDUERA PLANA: ZER, NOLA, NOR

ZER EGINGO DUGU

5. HELBURU ESTRATEGIKOA

✿ Eskaera soziala
suspertu



NOLA EGINGO DUGU


- Identifikazio kanpaina merkataritza sektorean.
- Getxoko elkarte eta erakundeak egitasmoan inplikatu: EGIZU, UK, ikastetxeak, euskaltegiak, elkarteak.....
- Udalerriz gaindiko erakundeekin (ALKARBIDE...) sentsibilizazio kanpaina orokorrak prestatu.

JARDUERA PLANA: ZER, NOLA, NORK

ZER EGINGO DUGU

6. HELBURU ESTRATEGIKOA

- ✿ Egitasmoaren inguruko komunikazio estrategiak erabili, merkatarien eta bezeroen egitasmoarekiko atxikimendua areagotzeko



NOLA EGINGO DUGU

- SIADECOK egindako azterketa soziolinguistikoaren emaitza nagusiak aurkezteko komunikazio-jarduera: esku-orriak, prentsa..
- Egitasmoaren inguruko informazioa etengabe helarazi eragileei, bai dendariei, bai bezeroei: urtean behin, gutxienez, egitasmoaren berri emateko, emaitzak jakinarazteko komunikazio-jarduera.
- Euskararen inguruko informazio interesgarria ere (GEHI...) helarazi etengabe.

AMAITZEKO I

- Getxoko esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera tasa oso baxua dela bistakoa da.
- Eskaera falta: Getxo bezalako herri batean merkatariek ez dute eskari handirik somatzen
- Horretan eragin nabarmena dute:
 - ✓ 5etik 1 da euskalduna ⇒ euskaldunen portzentaje oraindik baxua.
 - ✓ Horietako asko gaztelaniaz hobeto moldatzen dira euskaraz baino ⇒ euskaldunen gaitasun erlatiboaren garrantzia
- Euskara eta alderdi ideologikoa: Getxoko giro politikoak zaildu egiten du enpresek euskara sustatzea, bereziki, errotulazioan edo nortasun bisualean. Ez Getxo osoan, baina hau Getxoko auzorik komertzialenean nabarmena da.
- Erosteke ohituren aldaketa ⇒ ARTEA eta antzeko azalera handiek getxotarren erosteke ohiturak aldatu dituzte. Are gehiago, getxotarren aisialdian ere eragin nabarmena izan dute.
- Frankizien ugaritzeak ere honekin lotura izan dezake: La Retoucherie
- Baina, era berean 10etik 6k uste du euskarak eragin positiboa izan dezakeela establezimenduan. Beraz, euskarak baditu garrantzitsuak izan litezkeen balioak: identifikazioa, hurbiltasuna, harreman gertuagoak. Beraz, kalitate faktore bat ere izan liteke.

AMAITZEKO II

- Ildo horretatik, merkatariek duten irudipena da etorkizunean gero eta bezero gehiagok jakingo duela euskara eta beraz, etorkizunera begira, euskararen presentzia kalitate faktore bat ere izan litekeela.
- Kontsumitzaileen Legeak administrazio publikoak ere behartzen ditu kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu ditzaten. Badirudi udalek betetzen dutela legea. Bestelako kontua izan liteke zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresen kasua, diru-laguntza jasotzen duten elkarteetan kasua; azken batean, hizkuntza irizpideak jartzea.
- Askotan hasi egiten gara baina gero... Merkataritzan egitasmoak martxan jarri aurretik ondo neurtu dauzkagun baliabideak.
- Hasi aurretik geroa planifikatu: egitasmoak abian jarri aurretik jarraipena nola egin erabaki: zer egingo dugun, nola eta nork. Diagnostika egiteak ez du dena konpontzen.
- Dinamizazioa eta jarraipena egingo duen egitura beharko da eta horretarako baliabideak behar dira, diru eta giza baliabideak:
 - ✓ dela zerbitzu enpresen bidez
 - ✓ dela euskara elkartearekin hitzarmen bat izenpetuta
 - ✓ dela merkatarien elkartearekin
 - ✓ dela langile bat kontratatuz

AMAITZEKO III

- Elkartu beharra: edo koordinatu beharra. Udalaren barruan eta udalerrian merkataritzaz arduratzen diren eragileekin: merkataritzaz arduratzen den arloa (baldin badago), Behargintza, Kontsumitzaileen bulegoa, merkatarien elkarte... Alegia, euskara transbersala izatea. Euskara merkataritzara plana martxan jarri eta Udalak PERCO egiten ibili: bi bisitari udal beretik.
- Elkartu beharra: Erromo auzoan kale berean espaloi bat Leioa eta bestea Getxo. Espaloi batekoek eta eskaintza laguntza batzuk izango dituzte eta bestekeok beste batzuk.
- Elkartu beharra: Erandio-Leioa-Getxo-Berango-Sopela, herri bat amaitu eta bestea hasi. Bakoitzak bere merkataritza plana bere berezitasunekin baina era berean, antzekoak diren eskaintza eta zerbitzuekin.
- Elkartu beharra: ARTEAn euskara sustatzeko zer edo zer egitea noren ardura da Leioako Udalarena bakarrik? Erosle gehienak ez dira Getxokoak?

AMAITZEKO IV

- Elkartu beharra: Bizkaian 17 udalerrik egin du saioen bat euskararen erabilera merkataritzan sustatzeko: Getxon 500 establezimendu, Leioan 300, Erandion ... Bizkaikoak elkartuta marketing kanpainatxo bat egin liteke emaitza horien berri emateko. Zer esanik ez lurralde guztiak elkartu eta nazio mailako kanpainak egingo bagenitu: herrietan egiten diren kanpainen baturak izan beharko luke kanpaina handiak: $1+1=3$.
- Elkartu beharra: Euskara Merkataritzara egitasmoaren barruan hainbat konpromiso hartzen dituzte enpresek eta dendeak, eta Bai Euskarari ziurtagiriaren bidez ere bai.
- Elkartu beharra: Leioako Udala (edo Getxokoa) gauza txikia izan liteke ARTEA kudeatzen duen METROBACESA bezalako enpresa batentzat. Orain, Leioakoak + Getxoko Udalak + Aldundiak + Jaurlaritzak beste indar bat izan dezakete.
- Elkartu beharra: aurreko puntuan esandakoak frankizien kasuan ere balio dezake.

NAHI DUENAK ESKURAGARRI DITU ERREKLAMAZIO-ORRIAK

**EXISTEN HOJAS DE RECLAMACIONES
A DISPOSICIÓN DE QUIENES LAS SOLICITEN**

